

Intxaurrondo

Euskaldunak munduan barrena

Aitor Navarro (fnoa.: 943 288919)

a benturazaleek, bidaiari amorratuek, kultura desberdinak ezagutu nahi dituztenek Ipar Haizea elkartearen dute galduezinako zita. Hilaren 27tik 31ra, VI. Ibiltariaren Astea antolatuko du Intxaurrondoko elkarte honek.

Marokotik Calcutara

Guztira bost diapositiba emanaldi eskainiko dira hilaren azken bost egunetan. Lehenak "Todra, Afrikako paradisu galdua" izena du eta Jokin Lagunas eta Julen Mugarzak aurkeztuko dute. Diaporaman, Marokoko Atlasa zeharkatu ondoren, Todrako pareta gorriak eskalatu nahian ibili ziren zazpi intxaurrondotarren gorabeherak eskainiko dira.

Hilaren 28an, Koldo Urangak Kolonbia, Galapagos eta Patagonian bizitako zenbait pasadizo eta gertaera azalduko ditu. Ikusentzunezkoaren izenburua: "En los limites del continente sudamericano".

Hurrengo egunean, hilak 29, "La ruta cicloturista del Danubio: Passau-Viena" izenburua duen dokumentala aurkeztuko dute Arantxa Cuesta eta Elena Morenok.

Ipar Haizea elkarteak V. Ibiltariaren Astea antolatu du hilaren bukaerarako



Hegoamerika, Afrika edota Asiako irudiak ikus ahal izango dira Ipar Haizeak antolatutako V. Ibiltariaren Astean.

Hilaren 30ean, Felipe Uriarteren txanda izango da. "La ciudad imaginaria" izeneko ikusentzunezkoa aurkeztuko du Gaintzan bizi den Uriartek. Felipe lau kontinenteetan barrena ibili da eta bidaiari trebea dugu.

Azken egunerako Kepa Zamalloa dago iragarrita. "El golfo de Bengala: Calcuta, Sikkim, Assam, Bangladesh" izenburua du Zamalloak aurkeztuko duen diaporama. Lurralde horietan ezagututako hainbat erlijio, arraza,

paisaia eta hiri ezagutu ahal izango dira Zamalloak prestatutako ikusentzunezkoari esker.

Emanaldi horiek guztiak Ipar Haizea elkartearen eskainiko dira arratseko 20.00etan.

Kameraren atzetik zer?

Galdera horri erantzuten saiatuko dira Larrotxene kultur etxean. Antolatu den ikastaroaren helburua 6-9 urte bitarteko haurrei irudiek eragiten dizkieten emozioak aztertzea da, ikusle aktibo eta kritiko izan daitezen telebista aurrean. Aldi berean, gazte horiek sortzaile izatea da xedea, bai irudiari dagokionean eta baita beste zenbait esparru artistikotan ere. Horretarako irudiak ikusi eta irakurtzen irakatsiko zaie marrazkia, ahozko kontaketa eta musikaren bidez.

Irakaslea ezaguna izango da, zenbait telebista saiotako (Barrio Sesamo, La bola de Cristal, Willy Fogi...) gidoigilea izan den Isabel Alba hain zuzen ere. Ikastaroak ostegunero egingo dira, 17.30etatik 18.30etara, ekainaren 15era arte.

OIHALDENDA

El telar

Alfonso VIII, 8
Tfnoa.: (943) 42 42 10

PANORAMIX

Zabaleta kalea, 10
Donostia
TEL.: 943 28 00 00

REZOLA
Sagardotegia

- Sagardoa txotxetik eta botilatik
- Sagardotegiko menua. Arraina enkarguz
- Larunbat eta igandeetan eguerdiz irekita
- Asteazken zehar eguerdiz irekita enkarguz
- Urte guztian gauzez irekita

Ipintza baserria - Santio Zeharra - Tfnoa.: 943-55 66 37 - ASTIGARRAGA